

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
34/2021 TXOSTENA**

Gaia: Bermeoko Udalaren Kirol Patronatua desegiteko proposamena

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionalako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a eta d.1 artikulua

1. Aurrekariak

Lehenengoa.- 1984ko abenduaren 27an Bermeoko Osoko Bilkurak Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko (UKP) eratzea erabaki zuen.

2010eko martxoaren 10eko Osoko Bilkuran estatutu berriak onartu ziren.

Bigarrena.- 2021eko martxoaren 11n idazkariak Bermeoko Udal Kirol Patronatua desegitearen inguruko txostena egin zuen.¹

Hirugarrena.- Espedientean hainbat txosten egin dira eta Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2021eko ekainaren 15ean Bermeoko Udal Kirol Patronatua desegiteko proposamena bideratu du.

¹ 2021eko martxoaren 11n idazkariak Bermeoko Udal Kirol Patronatua desegitearen inguruko txostena oinarritzat hartuko da txosten honetan (txostenak jasotakoa ez errepikatzeko).



2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- 1955eko Dekretua, ekainaren 17koa, Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araudia onetsi duena (85-88 eta 30-35).
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (22.2.f, 85.2.a.b eta 85 bis artikulua).
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onetsi duena (95.artikulua)
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, toki-gobernua eguneratzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizatzeari eta jasangarritasunari buruzkoa.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki erakundeei buruzko legea (9,10,17,93-98 artikulua eta 7. Xedapen Iragakorra)
- Abenduaren 15eko 383/1987 Dekretua, Euskadiko Toki Administrazioen Erregistroa sortzen duena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.(II .Tituluko V. Kapituluak modu osagarrian)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007003100C2Y7F2F6L2L2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 16/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021
09:02:24

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0063
Data: 11/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



2.2. Azterketa juridikoa

Espediente administratiboari buruz

Momentura arte administrazio espedienteak hurrengo agiriak ditu:

Kirol Patronatuko zuzendariaren txostena
Arlo ekonomiko-finantziario- kontablearen azterketa txostena
Diruzaintzan izango duen eraginaren azterketa txostena
Ondarearen egoeraren azterketa eta udalean integratzeari buruzko txostena
Kontratazioaren egoeraren azterketa eta udalean integratzeari buruzko txostena
Langileriaren egoera aztertzeari eta Udalera integratzeko egokitasuna aztertzeari buruzko txostena
Langileen lan arriskuen inguruko azterketa txostena
Udal organoetan integrazioa egitearen ondorioei buruzko txostena
Errenta sailean izango duen eraginaren azterketa txostena
Antolaketa aldetik integrazioa egitearen aukerei buruzko txostena
Erabaki proposamena

Bermeoko Udalaren Kirol Patronatua desegiteko prozedura ez da zehatz-mehatz jaso estatutuetan, dena den, gehiengo doktrinak defendatzen du Erakunde Autonomoa eratzeko bideratu zen prozedura bera jarraitu behar dela desegiteko eta ezinbestekoa dela 7/1985 Legearen 49. artikuluan zehatutako prozedura jarraitzea.

Beraz, momentu honetatik aurrera hurrengo izapideak eta agiriak jaso beharko dira espedientean:

Izapidea	Oharrak	Arduraduna
Idazkariaren txostena	128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikulua araber	Idazkaria



Erakunde eta Kontu Batzorde bereziaren diktamena		Politikoki
Osoko Bilkuraren erabakia ondorio guztiak zehaztuz eta eragina noiztik izango duen zehaztuz	Gehiengo osoz	Politikoki
Informazio publikoa erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko	30 laneguneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko tabloian eta webgunean	Idazkaritza saila
Erreklamazio eta iradokizunak erantzutea (hala badagokio)		Idazkaritza saila
Informazio batzordeko irizpena (hala badagokio)		Politikoki
Osoko bilkuraren behin betiko erabakia (hala badagokio)	Gehiengo osoz	Politikoki
Behin betiko erabakiaren argitalpena	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko tabloian eta webgunean	Idazkaritza saila
Komunikazioa beste erakunde batzuei	Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundian, INEn eta Gizarte Segurantzari berri emango da	Idazkaritza saila

Eskumenari buruz

Administrazio espedientearen inguruan, Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, erabaki beharko du Bermeoko Udal Kirol Patronatua desegitea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) artikularekin bat.



3. Ondorioak


Bermeoko Udal Kirol Patronatua desegitea onartzeko proposamenari **aldeko txostena** egiten zaio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga,

Idazkari nagusia

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERNE</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E50007003100C2Y7F2F6L2L2</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 16/06/2021 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/06/2021 09:02:24</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2021IDA_ERA_0063</p> <p>Fecha: 11/03/2021</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	--	---

